

# **CEMRko Zuzendaritza Batzordearen Pragako adierazpena**

Praga, 2023ko abenduaren 7a

## *Konfiantza handiagoa eta ahots sendoagoa tokiko eta eskualdeetako gobernuentzat*

**§1** Guk, Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluko kideek, 40 herrialdetako 60 elkartetatik demokratikoki hautatutako milioi bat arduradun politiko ordezkatzuz, tokiko eta eskualdeko gobernuak gure udalerri eta eskualdeek aurre egiten ari diren erronka garrantzitsuei heldu egiteko orduan duten zeregin erabakigarria azpimarratzen dugu. Funtsezkoa da EBko eta estatueta arduradun politikoek tokiko eta eskualdeko gobernuari kontsulta egitea eta haiekin harremanetan jartzea legeri berria idaztean.

**§2** Tokiko eta eskualdeetako gobernuak dira gizartearen egungo arazo ugariari neurri zehatzekin erantzuten lehenak. Hala ere, EBren egungo politiken diseinuak eta garapenak ez die beti aukera ematen tokiko eta eskualdeko gobernuari lurraldean ekintzak eragingarriak egiteko.

Bereziki, honako hauek nabarmenduko ditugu:

**§3** Tokiko gobernuen parte-hartze desagokia, erabakiak hartzean. Tokiko gobernuak dira beraien herritarren beharrei buruz informazio gehien duten lurralde-erakundeak. Funtsezkoa da EBko politiken formulazioan aktiboki parte hartzeko eta erabakiak hartzeko prozesuan sartzeko aukera izatea. Europako politiken diseinuan eta ezarpenean tokiko eremuarekin parte-hartzerik eta kontsultarik ez izateak erabaki ez-eraginkorrak eta eskualdeen arteko kargaren banaketa bidegabea ekar ditzake. Garrantzitsua da azpimarratzea, hori ere, EBko kide ez diren baina Europako Esparru Ekonomikoa (EEE) buruzko Akordioaren ondorioz, EBko zenbait arau eta erregelamendu ezartzen dituzten herrialdeei aplikatzen zaiela.

**§4** Jasangarritasunerantzko trantsiziorako finantzaketaren epe luzerako berme eskasa. Europako tokiko eta eskualdeko gobernuentzako finantza-babesik eta lurralde-kohesiorako funtsik ezak eta dauden funtsak duten administrazio-karga handiak teknologia eta azpiegitura jasangarrietarako trantsizioa mantsotu dezakete, Itun Berdeko ("Green Deal") helburuak lortzea ezinezko eginez eta tokiko komunitateen egonkortasun ekonomikoa mehatxatuz.

**§5** Trantsizio-prozesuaren eragin sozial negatiboak eta desberdintasunak. Trantsizio berdea errazteko politiken ezarpenak eragin sozial negatiboak izan ditzake eta landa-hiria banatzera eraman dezake, bereziki industriarekiko eta erregai fosilekiko mendekotasun handia duten eskualdeetan. Horrek aktiboki prebenitu behar diren desberdintasunak eta gizarte-gatazkak eragin ditzake.

**§6** Lurralde bakoitzaren benetako gaitasuna eta egoera islatzen ez duten baldintzak. Eskari horiek eta "neurri bakarraren" arauaren arabera irizpideak ezartzea problematiko da. Tokian bertan emandako baldintzak ez islatzeak, helburuak gutxi onartzea eta Europak ezarritako helburu handinahiak ezartzeko pizgarriak kentzea ekar lezake.

**§7** Tokiko gobernuek herritarrekiko duten erantzukizuna eta Europako eta estatuetako politikak ezartzeko duten rol estrategikoa bete dezaten, honako hauek eskatzen dizkiegu EBko eta Estatuetao eragile politikoei:

1. **§8** Tokiko eta eskualdeko gobernuak modu estruktural eta estrategikoagoan integratzea politikak formulatzeko prozesuan, bereziki, eskumen deszentralizatuak funtsezkoak direnean emaitza politiko eraginkorretarako.
2. **§9** Haurren parte-hartzea are gehiago indartzea, parte-hartze hori oinarritzko eskubidetzat askok aintzat hartu baitute. Neska-mutilen parte-hartzeak konpromisoaren hainbat dimentsio hartzen ditu bere baitan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioarekin lotura estua izanik, eta hurrei gaur egun zein etorkizunean eragiten dieten bizi-etzabaiden giltzarri bihurtzen du hori.
3. **§10** Europako araudiak sinplifikatzea, karga burokratikoak ezabatzea eta "bat barruan, bat kanpoan" printzipioa aplikatzea, baita tokiko agintarientzat garrantzitsuak diren Europako betekizun berriei ere.
4. **§11** Estatuko, tokiko edo eskualdeko mailen arteko benetako elkartzelankidetzaren baldintza modu sendoan aplikatzea, kohesio-politikaren aplikazioan arrakastaz ezarritako elkartze-printzipioarekin parekatuta.
5. **§12** EBko erregelamendu eta neurrietarako portzentajezko helburu bideragarri eta malguak ezartzea, udalerrri eta eskualde bakoitzaren behar ezberdinak kontuan hartuta.

**6. §13** Udal-diseinuko eta udal-ezarpeneko ibilbideak konbinatzen dituzten mugarriekin erregulazio-esparru bat hornitzea, sare iraunkorretan inbertsioak egiteko pizgarriak emanez, segurtasuna arriskuan jarri gabe. Udalerriek, bereziki, finantza-baliabideak behar dituzte, egitura-babesaz gain.

**7. §14** Herrialdeen arteko azpiegiturei laguntzea eta mugaz gaindiko lankidetzaren modu intentsiboagoan sustatzea, adibidez, Europako 2.0 mugaz gaindiko mekanismoa babestuz.

**8. §15** Administrazio zabala eta zorrotza hobetzea eta sinplifikatzea, baita EBk zuzenean kudeatutako programa-funtsak eskuratzeko eskabideetarako sarbiderako oztupoak ere.

**§16** CEMRren Pragako adierazpenarekin, lankidetzarako eta elkarlaneko gobernantza handiagoa izateko beharra nabarmentzen dugu. Bide horretatik bakarrik lortu ahal izango ditugu gizarte- eta klima-jasangarritasunaren helburu komunak izatea, gure planeta etorkizuneko belaunaldientzat zaintzea eta gure herri, hiri, udalerri eta eskualdeetako herritarrentzat oparotasuna eta ongizatea bermatzea.

**Gunn Marit HELGESEN**

Presidentea

Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua

Vestfold eta Telemarkeko zinegotzia

**Philippe LAURENT**

Presidentekidea

Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua

Sceauxeko alkatea

**Christoph SCHNAUDIGEL**

Presidentekidea

Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua

Karlsruheko Konderriko presidentea

**Kamila BLÁHOVÁ**

Europako Gaietarako presidenteordea

Txekiar Errepublikako Hiri eta Udalerrien Batasuna

Litvfnoveko alkatea

**doc. MUDr . Bohuslav SVOBODA, CSc .**

Ohorezko presidentea

Txekiar Errepublikako Hiri eta Udalerrien Batasuna

Pragako alkatea